


ODOLA BEHAR DUGU!

Gizarte honentzat onuragarria da bere odola eskaini eta hainbat pertsona laguntzen duten odol emaileen sentimendua.

Gure herrian, 12 urte betetzen dira aurreko lagun talde batek Ermuko Odol Emaileen Elkarte eratu zuen haretatik. Horrenbestez, odola ematera zetozenen kopurua haundituz joan zen bitartean, odola emateko deialdiak, kartelak eta beste horrenbeste zehaztasun talde txiki horren esku geratu ziren. Honetan lanean diharduen Miren Bego Ugenarekin egon gara, eta berak argitu digu nola lehen, deialdia urtean hiru edo lau aldiz egiten zuten, azken bolada honetan hilerokotasunari heldu behar izan badiote ere.

Esan digunez, Euskal Autonomi Elkarte, Araba eta Gipuzkoa dira odol gehien ematen duten lurraldeak. Bizkaia, oster, gehien eskatzen duena da. Ermuan, 400etik gora odol emaile daude, baina bizi den jendea kontutan edukita, gehiagok eman beharko lukete. Zaldi-barrekin konparatuz, honek biztanlego askoz txikiagoa izanda, ia ia emale kopuru berdina du. "Herri txikietan sarri gertatzen da fenomeno hau, ahoz aho zabaltzen delako" aipatzen digu.

Herriz herri jasotako odola, Galdakaoko



Bi odol emaile "posizioan".

Eritetxeko Odol Sartze Zentrura doa, odol emaile bakoitzari dagokion zenbakiarekin. Analisi zehatza egin ondoren, honen berri bidaltzen zaio idatziz emaileari, anomaliarik balego, horixe argituz.

Gure gorputzak gordetzen dituen laupabost litroetatik emaile bakoitzari litro erdi baino ez zaio ateratzen. Miren Begok azpimarratu digunez, "odol hori ez da galdutzat eman behar, gure gorputzak pare bat egunetan berriztatze ahalmena daukalako. Gainera, gorputza lana egitera behartzen dugunez, ondo baino hobeto sentitzen gara".

Odola kasu gehienetan Larrialdi Zerbitzuetan erabiltzen da istripuak direla eta, edo-

ta aurrez programaturiko ebakuntzetan, hemen sarritan pertsona beraren odola erabiltzen bada ere.

Behar beste baino odol gehiago batzen denean, bota beharrean, plaketa kontzentratuak egiteko erabiltzen da, minbizia bezalako gaisotasun larriak gorputzean eragiten dioten kalteari aurre egiteko.

Azken boladan, emaile gazteen kopurua gehitu egin da. Bestalde, 18 urtetik 60ra bitarteko pertsonak urtean lau bider emateko gaitasuna dute. Behin 60 urte bete ezkerro, urtean behin ematea gomendatzen da.

IGNACIO PEREZ

Azkenik, 65 urtetik gorako pertsonak oso kasu berezitan daude odola emateko moduan.

Gaur egun, garbitasun eta kontu handienarekin jokutzen da. Emaile bakoitzeko poltsa bat dago, eta behin erabili ezkerro orratza bota egiten da.

Azkenik, odol emaile finko eta iraunkorak fidagarritasun handia eskaintzen dute, akorduan dutelako odola noiz eman behar duten, eta urtetan zehar bere odolaren eta gaisotasunen jarraipen zehatza egiten da. "Edozein arrazoi dela eta, ezin dutenean eman, adibidez haurdunaldian edo gaisotasun edo ebakuntza baten ostean, zapuztuta geratzen dira".

Estibalitz Gonzalez



TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11



ELEKTRIZISTA

José Angel Ziarsolo Izaguirre

Izalaieta kalea, 4
☎ 17 29 38 - Merkatuan, 17 47 30